

II. Eranskina (Oñatiko Inauteriak)

*Idatzi honetan Oñatiko Inauterien sormen prozesua azaltzen da. Interesgarria da jakitea nola eramaten den aurrera horrelako proiektu bat eta emandako pauso guztien berri ematen dute testu honetan sortzaileetako batzuk.

OÑATIKO IÑAUTERIEN HISTORIA (SORMEN PROZESUA)

Hasteko, gaian interesa zutenentzat bilera ireki bat egin zen eta Oñatz Dantza Taldeko kide, dantzari ohi, herritar eta herriko musikariekin osatutako lantalde bat sortu zen.

Lan metodo bezala, informazio bilketa bati ekin zitzaion. Horretarako Oñatin Iñauterien inguruko aurrekaririk zegoen edo ez aztertu zen.

Aurkitutakoen artean, Unibertsitateko ikasleek idatzitako bertso batzuk eta Zubillaga auzoan maskarak erabili izan ziren datuak bildu ziren. Jasotakoa oso esanguratsua ez zenez, Iñauteriak orokorrean zer diren aztertzen hasi zen lantaldea.

Horretarako Oier Araoloza dantzari eta antropologoaren laguntza jaso zen. Oierrek gidatuta iñauterietako arketipoak zeintzuk diren aztertu ziren, hau da, han eta hemen errepikatzen diren ezaugarriak zeintzuk diren. Horrela, gure dantzarien izaera eta jantzia definitzeko oinarriak jaso ziren eta baita musikarien jantziak diseinatzeko hainbat kontu.

Hortaz gain, dantzarien dantzen inguruan, bertan koreografiatutako dantzak izan behar zutela erabaki zen eta dantzarako erabiliko zen musikaren melodiak ere Oñatiarrek sortuak.

Dantzak koreografiatzeko makila-dantzen sinbologiak iñauterietan duen indarra gogoan izanik, errepertorioa osatzeko makila-dantzen presentzia ezinbestekotzat jo zen. Hau da, makilak lurraren kontra kolpatzeak eta azken honen esnatzearen sinbologia adieraztea.

Dantzak definitzerako orduan, dantzari bezala ezagutzen genituen urratsak eta mugimendu koreografiko jakin batzuk hautatu ziren dantzak osatzeko.

Makil dantzez gain, dantzarako zein ikusteko bizitasun handikoak diren kontradantza batzuk ere sortu ziren. Horrela, bi polka, bi makil dantza, balsa eta bi kalejirek osatzen dute gure dantza errepertorioa.

Bestalde, iñauterietako konpartsari forma emango zioten pertsonaiak sortu ziren. Egia da, aurrez kaleratu izan diren iñauterietako pertsonaia batzuk ere ekarri zirela iñauteri berrira. Hala nola, hartza, senar-emazte bikotea, alkatea, monagiloa, gauzaina eta mikeletea. Esan bezala, pertsonai kuadrila hau urte luzez atera izan da beste iñauteri batzuen osagarri bezala eta horregatik batu ziren Oñatiko iñauterietara ere.



Hortaz gain, 2013an Oñatiko konde eta kondesa pertsonaiak sortu ziren, aurrez aipatutako pertsonaiei batu zirenak. Herrian urte askoan izan duten nagusitasun eta harrokeriaren erakusle dira baina egunaren amaieran herritarrak dira kondeak menpean hartzen dituztenak eta herritik kanporatzen dituzte.

Dantzari eta pertsonaien artean istorio bat sortu beharra zegoela ikusi ostean, 2014an, hainbat berrikuntza sartu ziren. Egunari zentzua emango zion istorioa sortu zen eta berau kontatzeko “pregoilaria” gorpuztu zen. Honekin batera, konde eta kondesa babestuko zituzten borre-ro pertsonaiak gorpuztu ziren.

Hurrengo 2 urteetan, ordurarte sortutakoen lanketa sakondu eta identifikatutako gabeziak hobetzeko, egokitzapen batzuk eraman ziren aurrera.

2017an aldiz herriko ofizio zaharrak ezagutu eta balioan jartzeko asmoz, marko hortan sortutako pertsonaien aldeko hautua egin zen eta herriko ofizio zaharrekin zerikusi zuzena izan duten “txokolatero”en pertsonaiak sortu ziren.

Urte berean, giza-emankortasunaren seinale bezala, haur baten pertsonaia sortu zen eta baita beronen zaintzailea.

Azkenik, agerpen laburra izan zuten 2 laiari atera ziren, hurrengo urtean etorriko zenaren aurrerapen gisa.

2018an mozorroen iruditeria duten pertsonai batzuk sortu ziren. Natura biziaren konjurazioa dute helburu eta haien estetika dela eta agerpen laburrak egiteko sortu ziren. Eta hauekin batera, iazko laiariak gehitu ziren, naturaren errepresentazioa helburu duten pertsonai talde hontara.

2019an herriko ofizioen kontestura itzulita, “errementari” en pertsonaia batu zen Oñatiko inauterira.

Hortaz gain, haurrak partehartzaile zuzenak ez diren arren, inoiz musikariaren mikroak eramateko laguntza eskaini izan dute, eta hauek jaiaren etikoki txertatzeko, Traperoen figura sortu zen.

